



Dokumentu berria 2024-06-21

## **2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko oposizio-lehiaketa eta lehiaketa-oposizio arrunta**

### **HAUTATUTAKO PERTSONAK - OHIKO GALDERAK**

#### **Hautatutakoen zerrenda argitaratzea**

**Webgunean soilik, ekainaren 11n, argitaratu den hautatuen behin betiko zerrenda ofiziala al da?**

Ez, informazio-ondorioetarako baino ez da argitaratu.

**Noiz izango da ofiziala?**

EHAAn argitaratzen denean, hau da, 2024ko ekainaren 20an.

**Noiz hasten dira zenbatzen dokumentazioa aurkezteko, errekurtoa aurkezteko eta abarrerako epeak?**

EHAAn argitaratzen denean, hau da, 2024ko ekainaren 20an.

**Egonkortzeko lehiaketa-oposizioan eta ohiko lehiaketa-oposizioan espezialitate eta kidego berean hautatua izateko aukera izango bazenu, zein prozesutan hautatuko naute azkenean?**

Egonkortzeko oposizio-lehiaketan bakarrik hautatuko zaituzte, deialdiko 11.5 oinarriko 2. paragrafoa aplikatuz. Izan ere, argitaratutako hautatuen zerrendan egonkortzeko lehiaketa-oposizioan bakarrik agertuko zara hautatua.

#### **Dokumentazioa entregatzea**

**Zer epetan aurkeztu behar dut dokumentazioa?**

Hautatutakoen behin betiko zerrenda EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik harako hogeit egun naturaleko epearen barruan.

**→ Epea: 2024ko ekainaren 21etik uztailaren 10era arte, biak barne.**

**Nola entregatu behar dut dokumentazioa?**

Hemen aurkeztu behar duzu: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu behar dituzu) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko / ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautatuek agiriak entregatzea» (aplikazioan bertan dagozkion atalak eta «Hautatuek dokumentazioa entregatzea» ereduia betez eta dokumentazioa erantsiz).

## Noiz egiaztatzen da deialdian eskatutako baldintzak betetzen ditudala?

Eskatutako dokumentazioa aurkezten duzunean eta aztertu ondoren.

## Zer gertatzen da egiaztatzen bada ez ditudala betetzen deialdian eskatutako baldintzak?

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez baduzu, edo hura aztertuta ondorioztatzen bada ez duzula deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko dituzu.

## Zer dokumentazio aurkeztu behar dut? (BERRIA)

Deialdiaren 12. oinarrian adierazten direnak, “*Hautatuek agiriak entregatzeko*” izeneko ereduarekin batera. Dokumentu hori nahi bezala sina dezakezu, eskuz eta dokumentua eskaneatu, edo digitalki.

## Emango dizkidazu kontuan hartu beharreko argibide batzuk dokumentazioa entregatzeko orduan? (BERRIA)

- **Sartzeko eskatzen diren tituluak, NANA eta sexu-delituei buruzko ziurtagiria** ez dituzu aurkeztu beharko, baldin eta kontsultatzeko baimena ematen baduzu. Titulari dagokionez, ez duzu aurkeztu beharko, ezta baimenik eman ere, hautaketa-prozesu honetan aurkeztu baduzu. Baimena Interneteko helbidean eman ahal izango duzu, dokumentazioa aurkezteko gaitutako atalean.
- **Zinpeko aitorenaren eredia** eskuragarri dago Interneteko helbidean (aurreko galderan adierazitakoa), dokumentazioa aurkezteko gaitutako atalean. Nahi bezala sina dezakezu, eskuz eta dokumentua eskaneatu, edo digitalki.
- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegorako: Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa **irakaskuntza-esperientziaren** bidez egiaztatzeari dagokionez, ez duzu dokumentaziorik aurkeztu beharko, baldin eta ikastetxe publikoetan eta pribatuetan emandako zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badaude. Kontsultatu hemen: <https://hezigunea.euskadi.eus/> (sartu «Erabiltzaililea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza») – Arlo pertsonala – Nire laneko datuak – Zerbitzu-orria.

Langileen Erregistroan jasota ez badago, deialdiaren I. eranskinetako edo II. eranskinetako I. atalean (hautatua izan zaren prozeduraren arabera) adierazitako egiaztagiria aurkeztu beharko dituzu.

- **Desgaitasun-txandan** parte hartu baduzu, foru-aldundietako, dagokion autonomia-erkidegoko edo, hala badagokio, Estatuko Administrazio Orokorreko Gizarte Ongizateko departamentuetako organo eskudunen ziurtagiria aurkeztu beharko du, non % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortzen zaion, edo, bestela, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, non adierazten den irakaskuntzakoa ez den beste lanbide batean ezintasun iraunkor osoa dagoela. Ez dituzu aurkeztu beharko eskabideak aurkezteko hasierako epean aurkeztu badituzu.



**Ordezkapenak egiteko hautagai nitzenean ez banuen baimenik eman eta zegokion ziurtagiria eman banuen, berriro entregatu behar al dut orain? (BERRIA)**

Bai, salbu eta orain baimena ematen baduzu Hezkuntza Sailak kontsulta dezan.

**Ordezkoa naiz, entregatu behar al dut dokumentazioa? (BERRIA)**

Ez.

## Mediku-azterketak

**Noiz egingo dira azterketa medikoak?**

2024ko irailetik aurrera, praktika-fasea egiten den bitartean (praktika-faseak 3 hilabete eta egun 1 iraungo du).

**Noiz emango didate zita osasun-azterketak egiteko?**

Hitzorduak eskatzeko sistema bat jarriko da abian, eta horren berri emango da ekainean/uztailean, osasun-azterketa egiteko eguna eta ordua eskatzeko. Aurreko galderan esan bezala, ez da izango 2024ko irailaren 2a baino lehen.

**Irakasle-kidego bateko karrerako funtzionarioa banaiz eta oraingo hautaketa-prozesuan hautatua izan banaiz beste irakasle-kidego batean, pasatu behar al dut mediku-azterketa?**

Ez.

## Praktikak

**Non arautzen da praktika-fasea?**

- Deialdiaren IX. kapitulua
- EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez arautzen baita Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaien praktika-fasea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko eta aipatutako kidegoetan sartzeko lehiaketa-oposizio arruntaren bidez (EHAAn argitaratuko da 2024ko ekainaren 27an).



## Nola aukeratu behar dut praktikak egiteko destinoa?

Ikasturte-hasierako esleipen prozesuaren bidez. Egutegia Hezkuntzaren webgunean argitaratuko da, Ikasturte hasierari buruzko atalean.

## Zeren arabera esleitzen dira destinoak praktikak egiteko?

Hautaketa-prozeduran lortutako guztizko puntuazioaren arabera, esleituen behin betiko aktan agertzen denaren arabera.

Egonkortzeko lehiaketa-oposizioan eta ohiko lehiaketa-oposizioan hautatutako izangaiak talde bakar batean biltzen dira, denak ere puntuazioaren arabera ordenatuta.

## Zer postu eska ditzaket praktikak egiteko?

Soilik hautatua izan zaren espezialitateko lanpostuak edo espezialitate horren bidez eskura ditzakezun beste lanpostu batzuk (legez irakaskuntza-atribuzio aitortua duelako).

## Lanaldi murriztuko lanpostuak aukera ditzaket?

Ez. Lanaldi osoko lanpostuak aukeratu behar dituzu.

## Lanaldiaren zer ehuneko izan behar da zuzeneko irakaskuntzakoa?

2/3 gutxienez. Hau da, hautatua izan zaren espezialitatean edo aipatutako espezialitateari legez dagokion irakaskuntza-eskumena duten arloetan, gaietan, esparruetan edo lanbide-moduluetan, eskolak emanaz.

## Praktiketan nagoela, ikastetxean eskola-orduak murrizten dituzten karguak edo erantzukizunak har ditzaket (pertsona bakarreko zuzendaritza-karguak, programen edo proiektuen koordinazioa, BeA...)? (BERRIA)

Aurreko bi galderetan ezarritakoaren arabera, karguak edo erantzukizunak har ditzakezu irakastorduen 1/3erako gehienez.

## Hautatua izan zaren espezialitateko lanpostuetan, zuzeneko irakaskuntza-ordu guztiak espezialitate horretan eman behar dira? (BERRIA)

Ahal den neurrian, bai. Ikastetxeko zuzendaritzak, ikastetxearen irakaskuntza-antolamenduan, ahalik eta kopuru handiena lortzen saiatuko da. Hala ere, ordu gutxien espezialitate, kasu eta ikastetxe jakin batzuetan, beste batzuekin osatuko dira, horiek ere zuzeneko irakaskuntzakoak, hautatu duzun espezialitateari legez irakastea dagokien arlo, gai, esparru edo lanbide-moduluetan.

## Praktikak gaindituz gero, noiztik izendatzen naute karrerako funtzionario?

2024ko abenduaren 1ean praktikaldi osoa (3 hilabete eta egun bat) egiten baduzu eta ebaluazio positiboa lortzen baduzu, 2024ko abenduaren 2tik aurrerako ondorioekin izendatuko zaituzte, Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez. Agindu hori 2024ko abenduan argitaratuko da, ziurrenik.



**Haurdun nago, baja medikoan nago edo baimena dut seme-alaben jaiotzagatik, adopzioagatik edo harreragatik, eta ezin dut 3 hilabete eta egun bateko epea bete 2024ko irailaren 1etik abenduaren 1era bitartean, biak barne. Zer aukera ditut?**

1) 2024ko irailaren 1etik abenduaren 1era (biak barne) bitarteko eskola-egunen % 10eko absentzia metatua egon daiteke, destinoko zentroaren egutegi ofizialean jasotako eskola-egunen arabera (hala aurreikusiko du praktika-fasea arautzen duen Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen ebazpenak, zeina EHAAn argitaratuko baita, 2024ko ekainaren 27an).

2) % 10etik gorako absentzia izanez gero, eta, beraz, ebaluatua izateko legez eskatzen den gutxieneko epea betetzen ez baduzu, 2024ko abenduaren 1etik aurrera jarraitu ahal izango duzu praktiketan, 2024/2025 ikasturtean zehar, eta 2025eko abuztuaren 31n amaituko da praktiketako funtzionarioaren izendapena (hala ere, zuzeneko irakaskuntzako 3 hilabete eta egun 1 bete beharko dira 2025eko ekainaren 30ean, ebaluatu ahal izateko). Kasu horretan, eta praktika-fasearen nahitaezko ebaluazio positiboaren ondoren, karrerako funtzionario izendatzeak 2025eko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak (hala aurreikusiko du praktika-fasea arautzen duen Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenak, zeina EHAAn argitaratuko baita, 2024ko ekainaren 27an).

3) 1. eta 2. ataletan adierazitakoa gorabehera, **aurreikusten baduzu ez duzula beteko** ebaluatu ahal izateko behar den prestazio-aldia, praktika-fasea geroratzeko eskatu ahal izango duzu (deialdiaren 14.1 oinarria), eta **2025/2026 ikasturtean egin beharko dituzu praktikak**, 2025eko irailaren 1etik abenduaren 1era bitartean, biak barne; azken ebaluazio positiboa lortzen baduzu, karrerako funtzionario izendatuko zaituzte, 2025eko abenduaren 2tik aurrerako ondorioekin.

**Geroratzea eskatuz gero, zer esan nahi du geroratzea onartzen den ikasturtean hautatutako pertsonak ez duela inolako izendapenik edo loturarik izango Hezkuntza Sailarekin?**

Ezingo duzula praktiketako funtzionario edo bitarteko funtzionario izendatu.

**Zer epe daukat atzerapena eskatzeko? (BERRIA)**

2024ko ekainaren 21etik 27ra, biak barne.

**Nola eskatu behar dut praktika-fasea atzeratzeko?**

Interneteko helbide honetan eskatu ahal izango duzu: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022 EPE. Irakasleak. Egonkortzeko / ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautatutako agiriak entregatzea», aipatutako helbide honetan, horretarako aurreikusitako atala betez eta dagokion dokumentazioa erantsiz.

**Zein kasutan eska dezaket atzerapena? (BERRIA)**

Aldi baterako ezintasun-egoeran, semea edo alaben jaiotzagatik, adopzioagatik edo harreragatik edo aurreikusi gabeko eta salbuespenezko beste zirkunstantziaren batean daudelako soilik (praktika-fasea normaltasunez eragozten diena) eta Kalifikazio Batzordeak baloratuko du.



**Irakasle kidego batean urtebetez baino gehiagoz karrerako funtzionarioa banaiz eta txanda irekian beste irakasle kidego batean hautatua izan banaiz, praktikak egiteko edo ez egiteko aukera al dut?**

Aukera hauek dituzu:

- praktika-fasea egitea (ebaluaziorik gabe)

edo

- zure jatorrizko kidegoan jarraitzea, harik eta 2024ko abenduaren 2an karrerako funtzionario izendatu zuten arte.

Aukera egiteko adierazi aurreikusitako atalean honako helbidean: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022 EPE. Irakasleak. Egonkortzeko / ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautatutako agiriak entregatzea».

**Zer epe dut aurreko galderan adierazitako aukera egiteko? (BERRIA)**

2024ko ekainaren 21etik 27ra, biak barne.

**Praktika-fasea egitea erabakitzen badut, aurreko galdera batean horretarako aurreikusitako atala betetzeaz gain, idazki gehigarriren bat aurkeztu behar al dut? (BERRIA)**

Ez.

**Praktikak egitea erabakitzen badut, zer postutan egingo nituzke?**

Ikasturte hasierako esleipen-prozesuan esleitzen zaizuna. Prozesu horretan parte hartu beharko zenuke.

**Kasu horretan, zer egoeratan geratuko nintzateke karrerako funtzionarioa naizen irakasleen kidegoan?**

Praktikak egiteko lizentzia bat izango zenuke.

**Praktikak ez egitea erabakitzen badut, zer egoeratan egongo nintzateke 2024ko irailaren 1ean?**

Karrerako funtzionario gisa jarraituko zenuke lanean zauden kidegoan eta lanpostuan; kidego berrian karrerako funtzionario izendatuta zauden momentuan, eszedentzia eskatu beharko duzu irakasleen kidego batean, eta beste kidegoan jardunean jarraitu.

**Irakasleen kidego batean karrerako funtzionarioa banaiz eta beste irakasle-kidego batean hautatua izan banaiz goragoko talde bateko beste irakasle-kidego batera iristeko prozeduraren bidez, praktikak egiteko edo ez egiteko aukera al dut?**

Aurreko sei galderen erantzun berberak, txanda irekiaren bidez beste irakasle-kidego batera sartzen diren karrerako funtzionarioei dagokienez.



## **Kidego eta/edo espezialitate batean baino gehiagotan hautatuak**

### **Ohiko oposizio-lehiaketan hautatua izan banaiz kidego eta espezialitate batean baino gehiagotan, zer egin behar dut?**

Dokumentazioa entregatzeko, azterketa medikoa egiteko eta abarrerako izapide guztiak egin behar dituzu, eta praktikak bi espezialitateetan egin behar dituzu. «Dokumentazioa hautatuek entregatzea» ereduko «Oharrak» atalean adierazi beharko duzu praktikak zein espezialitateetan egitea erabakitzen duzun lehendabizi, 2024ko irailaren 1etik aurrera. Eta 2024ko azken hiruhilekoan deituko den lekualdatze-lehiaketan parte hartu beharko duzu, praktikak lehenengo egiten dituzun espezialitatean behin betiko destinoa lortzeko.

### **Aurreko galderan adierazitako kasuan, noiz egingo ditut bigarren espezialitateko praktikak?**

2025eko irailaren 1etik abenduaren 1era, biak barne.

## **Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduraren bidez hautatuak**

### **Deialdiaren 13.5 oinarriko 3. paragrafoko aurreikuspena aukera dezaket?**

Ezin duzu aukeratu, ez dagoelako beste irakasle-kidego batera iristeko prozeduraren bidez hautatutako pertsonarik, aurreikusitako kasuan dagoena (maisu-maistrek betetzen dituzten 1. eta 2. mailako DBHko lanpostuak dira).

## **Behin betiko destinoa lortzeko lekualdatze-lehiaketan parte hartzea**

### **Noiz parte hartu beharko dut lekualdatze-lehiaketan behin betiko destinoa lortzeko?**

2024ko azken hiruhilekoan deituko den lekualdatze-lehiaketan parte hartu beharko duzu. Praktiketako funtzionario gisa parte hartuko duzu (destinoa lortzeko, praktikak gainditu beharko dituzu), eta destinoa esleituko zaizu prozesuan lortu duzun puntuazio orokorraren arabera.

### **Zer lanpostu eskatu ahal izango ditut lekualdatze-lehiaketan?**

Behin betiko lehen destinoa hautatua izan zaren espezialitateko lanpostuetan izan behar da.

## **Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduraren bidez hautatua izan banaiz, ba al dut lekualdatze-lehiaketan lehentasunik?**

Bai, txanda irekian eta desgaituentzako txandan parte hartzen duten pertsona hautatuen aurretik parte hartuko duzu.

**Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera sartzeko prozeduraren bidez hautatua izan banaiz eta kidego berrian, lekualdatze-lehiaketan, behin betiko destinoa lortzen badut, zer egin behar dut?**

Irakasleen kidego batean eszedentzia eskatu behar duzu, eta bestean jardunean egon. Eszedentzia eskatzen duzun kidegoan behin betiko destinoa bazeneukan, lanpostu-erreserba galduko duzu.

## Uko egiteak

**Uko egin al diezaioket hautatua izateari?**

Bai

**Nola eskatu behar dut uko egitea?**

Adierazi "Hautatuek dokumentazioa entregatzea" ereduko "Oharrak" atalean. Eredu hori hemen dago: <https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ )» eta «Pasahitza» sartu behar dira) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022 EPE. Irakasleak. Egonkartzeko / ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautatuek agiriak entregatzea».

**Uko egiten badiot, ordezeko bat sartuko al da hautatu gisa?**

Bai, baldin eta deialdi eta espezialitate horretan ordezekoen zerrenda badago eta uko egitea 2024ko uztailaren 19ra arte, egun hori barne, aurkeztu bada.

## Errekurtsoak eta espedientea ikustea

**Prozesuaren emaitzarekin ados ez banago, errekurtsua jar dezaket? Zein epetan?**

Berraztertze errekurtsua aurkez dezakezu helbide honetan:

<https://hezigunea.euskadi.eus/> (sartu «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza») – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen Sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkartzeko / ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautatuen behin betiko zerrendaren aurkako berraztertze-errekurtsua: formularioa eta erregistroa».

Epea hilabetekoa da, hautatuen zerrenda EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; hau da, 2024ko ekainaren 21etik uztailaren 22ra arte, biak barne.





## **Eska al dezaket oposizio-faseko probak nola ebaluatu diren ikusteko?**

Bai, idazki bat aurkeztu behar duzu Tramitagune – “Beste izapide batzuk” bidez, jakin nahi duzuna xehetasunez adieraziz eta honako hau identifikatuz: "2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko / ohiko lehiaketa-oposizio" – Espedientearen ikustaldia”.

## **Ordezkapenatarako hautagaien zerrendak**

**Ordezkapenak egiteko hautagaia naiz. Nire lan-egoera aldatu behar dut, praktikak 2024ko irailaren 1etik aurrera egingo ditudalako? (BERRIA)**

Ez. Hezkuntza Sailak egingo du aldaketa, eta landun-egoerara igaroko zara.

**Oposizio-fasea gainditu badut baina hautatua izan ez banaiz (bai egonkortzeko oposizio-lehiaketan, bai arruntean), ordezkapenatarako hautagaien araudian aurreikusitako 6 puntuak lortuko al ditut?**

Bai.

**Noiz aplikatuko dira 6 puntuak?**

2025/2026 ikasturterako ordezkogaien zerrendak birbarematzeko prozesuan.